

“

*Baliabide gutxi izan arren,
ambizio handikoak izan gara beti*

JOXEMARI OSTOLAZA LERTXUNDI



Ez da edonor Argian Joxemari Ostolaza (Donostia, 1948). 1978an kaputxinoena zen *Zeruko Argia* sartu eta handik gutxira kinka larrian zen enpresa langileek erosi zutenetik, gaur arte egindako bidearen parte eta lekuko izan da. Ahoan bilorik gabe hitz egin digu. Militantzia eta berdintasunaz mintzatu gara berarekin, Argiaz eta herrigintzaz.

TESTUA | PELLO ZUBIRIA ETA LANDER ARBELAIZ

Nolakoa zen zure ingurua gaztetan?

Gurasoak aparte utzita, ezagutzen genituen euskaldun guztiak *kaxeroak* ziren guretzat, modu gutxiesgarrian esanda. Ni orduan oso modernoa nintzenez, 9 urte egin nituenerako euskara erabat galdu nuen. 14 urterako lehen rock taldea osatu genuen, eta noski, gaztele-raz eta frantses txarrean egiten genuen. Kontua zen euskalduna ez izatea. Izugarritzko lotsak pasatzen genituen, batez ere aitarekin. Hark ez zekien ongi gaztelaniaz, eta berdin zitzaion. Erdaldun petoa izan nintzen 18 urtera arte.

Nolakoa zen giroa 60ko hamarkadan?

Donostiako Egia auzoan bizi ginen. Kirola egiteaz gain, Los Paxai musika taldea genuen. Ez Dok Amairuren sortze ataria zen. Hainbat txapelketa irabazi genituen, tartean Radio Nacional de España antolatua. Rafaelen *telonero* ere izan ginen 1965ean. Orduan, bizimodu horretan haustura erradikala eraginez bi elementu sortu ziren: ETA eta Ez Dok Amairu. Mexikon abesteko kontratu bat genuen eta neure buruari esan nion: “Ez dut gehiago gaztelaniaz abestuko, *fuera*”. Euskara berriro deskubritu nuen eta erradikalki euskalduna izan nahian hasi nintzen.

Zer zekarten berria Ez Dok Amairuk eta ETak?

Illusio ikaragarria eta emozionalki, gurasoak, aitona, amona eta abarrekin konexioa. Desafioa ere interesgarria zen: auzoan gau-eskola muntatu genuen lau katuren artean, eta ondoren, Aitor ikastolaren ideia plazaratzen hasi ginen.

30 urterekin *Zeruko Argia* sartu zinen, 1978an. Zer ikusten zenion?

Niretzat dena bat da. Euskaraz abestea edo futbolaren bueltan gazteekin egiten dugun lana ere bai. Proiektu baten barnean dauden elementuak dira. Baleren Bakaikoa Ziburura etorri eta *Zeruko Argia* sartzea proposatu zidan. Orduan ni bestaldean nengoen, arazoak nituen etortzeko. *Egin* eta *Deia* sortzen ari ziren unean, *Zeruko Argia* hustuta geratu zen. Pilar Iparragire, Elixabete Garmendia, Jose Luis Alustiza, Lourdes Auzmendi eta Karlos Astrain Rotu aldizkarian geratu ziren eta hor ezagutu nituen.

Zein zen panorama?

Ekonomikoki ez zuen bideragarritasunik. Esaten zuten 12.000 ale saltzen genituela, baina ez zen hala: inprimatu bai, baina 6.000 ez ziren kobratzen. Publizitatea ere *Egin* eta *Deia* sortu berriek eraman zuten, eta gero, egunkariok ateratzen hasi ziren euskarazko gehigarriak, *Berriak*, *Punto y Horak* eta *Garaia* kristoren mina egin ziguten. Ezin zen horrela jarraitu. Urtebete baino gehiagoz eutsi genion, haustura etorri zen arte. Kaputxinoek ez zuten onartzen sortzen ari ginen zuloa, nahiz eta orain begiratuta zulo ekonomikoa ez zen hain handia. Hala ere, horrek ez zuen etorkizunik.

Kaputxinoek zuen ildoarekin bazituzten desadostasunak?

Bai. Oso jende gutxi zegoen gurekin ados. Nahi gabe, oso alternatiboak bilakatu ginen. Gazteak ginen eta progresista izan nahi genuen. Gaiak lantzean, adibide bat hartzearen homosexualitatea, nahi duzun aldetatik helduta, gure iritzia ez

ziren ongi ikusiak betiko euskal mundu horretan. Pilar Iparragirrek, adibidez, sekulakoak entzun behar izan zituen artikulu baten harira. “Urdanga” eta halakoak esan zizkioten, idatzita dago.

Aldizkaria egiteko prozesua zeuenganatzen hasi zineten.

Prozesu teknikoak garrantzia du. Oraindik ez zen ordenagailurik, munstroak bakarrik. Ez zen testua filmatzeko gai. Egia auzoan hornitzaile bat bilatuz hasi ginen. Han egiten zuten lan Joxemi Zumalabek eta Jon Barandiaran *Barandi*-k. Guregana etortzea eta beste enpresan egiten zuten lana guretzat gurean egitea proposatu nien. Baina kaputxinoek ez zuten segitu nahi eta proposamen bat zuten.

Norena?

Oñatibiarena, Mimentzarena eta *Goizargi* egiten zutenena. Guk ezin genuen hori onartu eta gure estrategia erabili genuen: gure ustez hori gurea zen eta ez kaputxinoena. Gu ginen bertako langileak, zorra sortu baina berau kudeatzen genuenak. Gainera, ordurako diru dexente sartua genuen enpresan guk, gure lagunek, senideek... eta ez kaputxinoek. Beraz, zilegitasun osoa aitortzen genion gure buruari hori geureganatzeko. Azkenean, ez ziguten *Zeruko Argia* goiburua eman; ARGIA eman ziguten, bigarren mantxeta bat. Ondorengo izan zen tratua: *Zeruko Argia* 10 urteren buruan ez bazuen inork ateratzen, gerora ezingo zuela inork egin. Aldi berean, gure enpresaren izena *Zeruko Argia* izatea lortu genuen. Momentu konplikatu izan zen. Gero, etorri zen Josu Landa, Pello Zubiria, Iñaki Uria eta hauek sartu ziren garaia. Eta hauek, ARGIA gauzatu zuten.

Zein baloreren gainean egiten zenuten lan?

Gaurkoak. Nik orain harpidedun gisa zuen aldarrikapenak irakurtzen ditut eta ikusten dut ordukoa dela. Bereziki nola aurkezten dituzuen kanpainak, eta kontzeptualki gauza berak dira: naziotasuna eta independentzia.

Kazetaritza independentea egiteko independentzia politikoa eta ekonomikoa behar dira. Jarduera ekonomiko gisa ere jabe izatea.

Independenteak izan behar genuela bagenekien, hala izan nahi genuen, eta beraz, gure burua finantzatu behar genuela. Hori ez da aldatu.

Guk badugu non begiratu. Zuek bazenuten?

Guk ere bagenituen erreferenteak. Ordu-rako marxismoa pixka bat ikasita genuen, bagenituen Vietnam, Aljeria, Kuba, apaiz obreroak... Ideologizazio aldetik giroa oso aberatsa zen. Hala ere, lehen gu gutxien-goia ginela uste nuen, eta orain konturatzen naiz anekdota izan garela. Beharrezkoak, baina anekdota. Herri hau Telecinco da.

Zuk bereziki egin zuenuen ekarpena, eus-kara hutsean funtzionatuko zuen egitura honi inguru enpresarial bat emanda.

Garai hartan hasi izan bagina soldatak, gizarte segurantzak eta abar eskatzen, ezingo genuen urtebete ere iraun. Enpresak sortu behar ziren ez bakarrik ARGIAri sostengu ekonomikoa emateko, baizik eta inguru bat sortzeko jardun horri. Konplizitate handia behar zuen inguruan. Nik uste hori lortu zela. Gaur buelta bat egin dugu hemen [ARGIAko egoitzara eta Antza inprimategira etorri da] eta konplizitate batzuk ikusten ditut, eta hori ez da bat-batean sortzen. Eguneroko jardunaren irabazietatik abiatuta egiten diren gauzak dira pabilioiak eta makina hauek izatea. Logikak eskatzen zuen moduan egiten joan da dena. Gure buruan, hor ez zegoen langilerik, baizik eta bazkideak. Hori zen helburua, baina hori gauzatzeko bide oso luzea izan da. Adibidez, ARGIAk lortu du hori, ia langile guztiak zarete bazkide. Dena den, ez da hain erraza izan, krisi handi xamarrek pasatakoak gara.

Zein rol jokatzeko zuen 80ko hamarkadan ARGIAk?

Gure ustez, gizarte honek behar zuena egiten genuen. Eta nik uste horretan asmatu egin dugula. Baliabide gutxi izan arren, anbizio handikoak izan gara beti. Inork



A. BAYO

gutxi egiten dituen elkarrizketak egiten genituen. Musikan berdin, nik entzun nahi dudana egiten dut. Ez genituen bilerak egiten erabakitzeke zein zen gure ideologia eta abar. Egunero bizi ginen elkarrekin, bagenuen elkarren berri, eta herri honetan gauzak nahiko argi egon dira beti. Beno, orain ez hainbeste.

"Diru dexente sartua genuen enpresan guk, gure lagunek, senideek... eta ez kaputxinoek. Beraz, zilegitasun osoa aitortzen genion gure buruari hori geureganatzeko"

Hain zineten anbiziotsuak, astekaria egiteaz gain **Euskaldunon Egunkaria** sortzen hasi zinetela. Zu zertan aritu zinen? Denetarikoa lanak zeuden egiteko. Lan politikoa, Gasteizera joan, batarekin eta bestearekin hitz egin, diru bilketa, idatzi, bileretara joan... Ez zen egituratzerik egon dozena erdi azpikontratatu kenduta. Bazegoen inplizituki, bakoitzak bagenekien zertarako ginen egokiak, baina lanak hor zeuden eta egiten ziren. Enbaxadore lana tokatu zai-gu beti, azaldu behar baituzu ebidenteak, konturatzen zarela ebidenteak ez dagoela argi. **Egunkaria**rekin defendatu behar izan dugu euskaldunok eta euskarak bagenuela

eskubidea egunkari bat ere izateko. Hori tokatu da. Gaur ere tokatzen da gure mundutxotik harago hori defendatzea.

Nabarmenduko zenuke zerbait?

Proiektua lagundu nahi zutenek dirua banku batean sartzen zuten eta zergatik ez zieten izena eskatzen? Gestio luze hori eginga zegoelako. Egon zen hori onartu zuen entitate bat, seitek bat. Eta gero, hauen atxilotetan [Pello Zubiriari begira], konturatzen zara erabakiorra izan zela hori, izenak nahi baitzituzten. Espainiako prentsak zioen: *"No es posible creer que haya habido gente que sin más haya puesto dinero"*. Determinantea izan zen lortzea izenik eman gabe ekarpenak egin ahal izatea. Diru dexente sartu zuen jende batek.

Euskaldunon Egunkaria sortzean lokal bila ibili zineten, eta oker ez bango, hori hartu ahal izateko familia batzuek dirua jarri zenuten.

Horiek anekdotak dira. Baina aurretik ARGIA zulo batetik ateratzen lagundu zuten lau izen eman beharra dago: Santi Auzmendi jostuna, La Casa del Cafe-ko Iriondo, Enparanza aparejadorea eta Elhuyarreko Luis Bandres zena. **Egunkaria**ra heltzeko zulo hori pasa beharra zegoen. Eta hori, une batean erabakiorra izan zen. Familiakoa anekdota izan zen, baina hau ez, hauek ez baitzuten seme-alabarik proiektu honetan sartuta.

Orain urte batzuk egindako errepor-taje batean esan zenuen garai hartan euskara zela ardatza, naziogintzan ari zinetela ezkerreko ikuspegi eta praktika batez. Hori zela motorra. Sakonduko zenuke?

Nik aipatzen badut feminismoa, niretzat feminista izateko ezkertiarra izan behar da. Hau da, mundua eta gizartea eratze-ko modu bat, non, inork inor menperatzeko baliabiderik gabeko mundua den. Euskaldunak bagina kolonizatzaileak, ni euskaldunen aurka egongo nintzateke, ezkertiarra banintz, bestela ez nintzateke ezkertiarra izango. Beraz, niri tokatu zait zapalduen semea izatea... eta 18 urterekin hasi nintzen ebidentzia hori onartzen. Eta beste antzekoekin lotura egiten. Niretzat ezin da ezkertiarra izan Euskal Herrian euskaldundu gabe. Izugarrizko kontraesana da.

Euskal kulturaren, zenbaterainoko garrantzia du militantziak?

Oinarritzakoa. Euskara aukeratzen baduzu zure jardun sortzailean, gutxiengo baten hizkuntzan jardutea hautatu duzu eta koherentea izan behar duzu. Bada-kizu ezingo duzula salmenta zuzenetik frantsesak eta erdaldunak bezala bizi. Ezin duzu pentsatu 100.000 liburu salduko dituzunik. Musika beste sorgin bat da. Baina kontzienteki aukeratzen duzu euskaraz egin nahi duzula, eta beraz, ondorioak onartu. Oso militantzia indartsua behar duzu hor irauteko; edo bestela, diru-laguntzetatik bizi.

Nola ikusten duzu euskalgintza egun?

Oso iritzi kontrajarriak ditut eta bada-ki ez naizela batere objektiboa. Gustu-ko jendea daukat eta hori kontsumitzen dut. Gu ez gaude normalizatuak alde horretatik. Hori nire adinean karga bat da: Durango, Durango, Durango, Durango... eta Durango baino hilabete lehenago

hasten dira. Batek poesia liburua egin duela, eta oso garrantzitsua dela publi- katzea, nahiz eta 60 ale bakarrik salduko dituen eta editorialaren gastua institu- zioek 300 erosita konponduko den. Hori niri fantasia iruditzen zait. Zumosolen lehengusua desagertzen denean, zer gertatuko da? Gai al gara egiten duguna- rekin geure burua elikatzeke? Badirudi ezetz.

Eta nola ikusten duzu euskarazko he- dabideen ekosistema?

Ez dut ezagutzen, baina kanpotik ikusita, publikatu zenuten azken tarta eskan- dalagarria iruditzen zitzaidan. [ARGIAko 2623. zenbakiko azala eskuetan hartuta, Eusko Jaurlaritzaren publizitate banake- tari buruzkoa]. Gehiago esango dut: gra- fiko hau ikusi eta gorpuzak eskatzen di- dana ez da diru-emaileen aurka egitea, baizik eta zenbait hartzailearen aurka. Elkartasun ezagatik. Insolidario hutsak dira. Eta niretzat hori kiebra jotzeko ele- mentu indartsuena da. Gripe bera bai- ta-ukagu, baina zuri farmazian eman egin dizute eta niri ez, niretzat ez omen dago. Hor autoeraketa bat gutxienez ez ego- tea... Gu saiatu ginen hori lortzen, baina ez zitzaigun atera. Gipuzkoako Aldundi- ko Gotzon Egia da horren lekuko. "Zuk esan zenbat daukazuen, guk irizpideak baditugu eta guk banatuko dugu gure ar- tean" zen filosofia. Horrekin militantzia eta dena dago lotuta. Hau ikusita, "bakoi- tzak berea", argi dut dependentzia poli- tikoak eta ideologikoak hortik etorriko direla, ez badira dagoeneko iritsi. Ez zait interesatzen zertan ari diren.

Urte luzez aritu zara hemen zutabeak astero idazten.

Zer da zuretzat ARGIA?

Etxea: zaharra, berriua, jende berria- rekin... baina etxea. Adibidez, gure se-

me-alabek ez zuten jakiten zer erantzun irakasleak galdetzen bazien beren aita- ren ogibideaz. Behin alabak "Argieroa" jarri zuen. Berari galdetu beharko zaio 15-16 urterekin zer zen "Argieroa" iza- tea. Zeure biziari ematen diozun edukia da azken finean, ARGIA tokatu da, baina Hernaniko futbol taldeak ere galde de- zake eta berdin-berdin. Han bizitza osoa pasa dut ahal dudana ematen.

Nola ikusten duzu gaur egungo ARGIA?

Oso ongi. Batetik, ikusten ditut insta- lazioak eta hori zen guk nahi genuena. Eta gero, ikusten zaituztet fundamentuz, egunero jasotzen dut e-postan albisteen buletina eta gero astekaria. Galdetzen badidazu horrek zer leku duen? Ez dakit. Baita ere, disgusto handiarekin esango dizut, ez dudala nire inguruan (musika akademian edo futbol eskolatan) ARGIA- ren edo *Berriaren* irakurlerik ezagutzen. Horrek berdin-berdin jarraitzen du. De- magogia handia egin liteke, baina hori hor dago.

Orain gutxi Rikardo Arregi Kazeta- ritza Sarietan ikusi zaitugu, oholtza gainean, ARGIAko egungo lantaldeak zuen belaunaldiari egin nahi izan ge- nizuen aitortzan. Konta dezakezu nola bizitu zenuen?

Hasieran, harridura. Rikardo Arregi Sariei buruz nire iritzia banuen eta badut. On- doren, lagunak komunikazioak irakurri- ta, kristoren poza. Eta gero, nik uste, argi utzi genuela gu ez ginela estandarrik. Ez zuek eta ez gu. ARGIA ez dela estandarra, saria jasotzeko gure unean dena ezber- dina izan baitzen. Ildo berean jarraitzen dugu. Anekdotak bat da sariarena, baina han lehen lerroan ikusi nituen batzuek irentsi behar izatea gu hor goian agertzea, ostia, poza eman zidan. Bai, hori da. ●



2019an nahi duzun lekura iritsiko gara



Bidaia bat baino askoz gehiago.

Tel.: +34 943 36 32 90

www.autocares-aizpuru.es